

ZENTSUAK ETA BIZTANLERIAREN ESTADISTIKAK: Euskal Herriko datuak homologatzea

Euskal Herrian bederatzi etxebizitza nagusitatik bakarra dago alokairuan, eta %85,3 jabetza eredukoak dira

2001eko datuen arabera, Euskal Herrian jabetzaren eredia da nagusi etxebizitza eskuratzeko orduan. Hamar etxebizitzetatik zortzitan baino gehiagotan (%85,3) jabeak bizi dira, eta hamarretik bakarra baino ez dago alokairuan (%10,6); gainerakoak utzitakoak dira edo bestelako eredu batekoak.

Euskal herriko etxebizitzen %85,3 jabetza eredukoak dira, eta alokairuan, berriz, %10,6 baino ez daude; gainerakoak utzitakoak dira edo bestelako eredu batekoak

(Ikusi 1. taula eta 2. grafikoa)

Euskal Herrian etxebizitza nagusien %10,6 baino ez alokatzea adierazgarria da, Europako Batasuneko batez bestekoa baino askoz urriagoa baita kopuru hori (1999an, etxebizitzen %39 zeuden alokairuan hamabost herrialdeetan). Are gehiago, Europako hainbat herrialdeetan etxebizitzen erdiak baino gehiago daude alokairuan: Alemanian %62 eta Herbehereetan %52. Euskal Herrian, esan dugu, etxebizitzen %85,3 jabetza eredukoak dira, eta Europako Batasuneko herrialde bakarrak du portzentaje handiagoa: Espainiako Estatuak (%86).

Euskal Herrian alokatzen diren etxebizitzen portzentajea (%10,6) Europako Batasuneko batez bestekoaren (%39) laurdena baino ez da

(Ikusi 3. taula eta 4. mapa)

Arrazoiak begi bistakoak dira: Frankismoan hasi eta, oro har, gaur arte luzatu den etxebizitza politikak jabetzaren eredia bultzatu dute, eta urtez urte, garai batean nagusi zen alokairuaren eredia (%51 inguru 1950. urtean) indarra galduz joan da. Horrek, noski, zuzenean eragin die Espainiako Estatuaren barruan dauden euskal lurraldeei, eta ondorioz, esku artean ditugun datu hauei ere bai.

Horren adierazgarri da 1991tik 2001era Euskal Herrian izan den bilakaera etxebizitza eskuratzeko moduetan. Alokairua gutxienez bi puntutan jaitsi da hamar urteren buruan: 1991n, etxebizitza nagusien %12,7 zeuden alokairuan, eta 2001ean, berriz, %10,6ra jaitsi zen portzentaje hori. Datu horiei beste aldetik begiratzeko aukera ere badago: 1991. urtean, etxebizitzen %83,1etan jabeak bizi ziren, eta 2001. urtean, berriz, %85,3tan.

(Ikusi 5. taula)

Europako Batasunarekin alderatuz, azpimarragarria da alokairuak gurean duen pisu urria, eta are azpimarragarriagoa alokairu sozialak duen zabalkunde eskasa. Azken batean, alokairua urria izatea bezain garrantzitsua baita alokatzen diren etxebizitza gehienak jabe pribatuenak izatea. Hau da, botere publikoek ez edukitzea alokairura bideratzeko etxebizitza multzo esanguratsu bat. Europako Batasunean, batez beste, %18ra iristen da alokairu soziala; Euskal Herrian, aldiz, hutsaren hurrena da alokairuzko etxebizitza sozialen kopurua. Europako zenbait herrialdeetan, gainera, etxebizitza guztien herenak edo laurdenak bideratzen dituzte alokairu sozialera: %35 Herbehereetan, %26 Alemanian, %23 Austrian eta %22 Suedian.

Europako Batasunean, alokairu soziala batez beste %18ra iristen da; Euskal Herrian, berriz, hutsaren hurrena da.

(Ikusi 3. taula eta 4. mapa)


Taula eta grafikoak

1. Etxebizitza nagusiak, edukitzeko moduaren arabera. Euskal Herria, 2001 (%)

	Kop.	%
Jabetza	888.871	85,3
Alokairua	110.001	10,6
Utzia edo Beste	42.782	4,1
Etxebizitza nagusiak	1.041.654	100,0

Iturria: *Euskal Herriko Datu Talaia*. Etxebizitza zentsuak (INE, INSEE).
* **Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.

2. Etxebizitza nagusiak, edukitzeko moduaren arabera. Euskal Herria, 2001 (%)



Iturria: *Euskal Herriko Datu Talaia*.
Etxebizitza zentsuak (INE, INSEE).
* **Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.


3. Etxebizitza nagusiak, edukitzeko moduaren arabera. Euskal Herria eta Europako Batasuneko herrialdeak (15), 2001 (%)

	Jabetza	Alokairua	Alokairu soziala	Alokairu pribatua
Euskal Herria	85	11		
Espainiako Estatuak	86	14	2	12
Irlanda	80	20	11	9
Italia	78	22	6	16
Grezia	74	26	0	26
Erresuma Batua	69	31	21	10
Portugal	68	32	4	28
Finlandia	67	33	14	19
Luxenburgo	67	33	2	31
Belgika	63	37	7	30
Europako Batasuna (15)	61	39	18	21
Suedia	62	38	22	16
Austria	55	45	23	22
Danimarka	55	45	19	26
Frantziako Estatuak	54	46	17	29
Herbehereak	48	52	35	17
Alemania	38	62	26	36

Iturria: *Euskal Herriko Datu Talaia*. Etxebizitza zentsuak eta etxebizitzaren datuak (INE, INSEE eta Fundación La Caixa).

* **Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira. Euskal Herriko ehunekoen baturak (jabetzarenak eta alokairuenak) ez du ehun ematen, gainerako %4a bestelako ereduari dagokielako. Europako Batasuneko herrialdeetako datuak 1999. urtekoak dira; beraz, ez da biltzen Europako Batasunean 2004. urtean sartu ziren 10 estatuen datuak.

4. Alokairuan dauden etxebizitza nagusiak. Euskal Herria eta Europako Batasuneko herrialdeak (15), 2001 (%)



Iturria: *Euskal Herriko Datu Talaia*. Etxebizitza zentsuak eta Etxebizitzaren datuak (INE, INSEE eta Fundación La Caixa)

* **Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira. Europako Batasuneko herrialdeetako datuak 1999. urtekoak dira; beraz, ez da biltzen Europako Batasunean 2004. urtean sartu ziren 10 estatuen daturik.

5. Etxebizitza nagusiak, edukitzeko moduaren arabera. Euskal Herria, 1991-2001

	1991	2001	1991	2001
	Kop.	Kop.	%	%
Jabetza	730.746	888.871	83,1	85,3
Alokairua	111.407	110.001	12,7	10,6
Utzia edo Beste	36.726	42.782	4,2	4,1
Etxebizitza nagusiak	878.879	1.041.654	100,0	100,0

Iturria: *Euskal Herriko Datu Talaia*. Etxebizitza zentsuak (INE, INSEE, EUSTAT)

* **Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1990ekoak eta 1999koak dira, eta ez 1991koak eta 2001ekoak.

- Prentsa ohar hau egiteko erabili ditugun datu guztiak helbide honetan aurkituko dituzu:

WWW.datutalaia.net

- **Datu Talaia, Gaindegiako Estatistika Sailak**, Espainiako eta Frantziako estatueta azken zentsuetan (2001 eta 1999ekoak, hurrenez hurren) oinarrituta egin dituen homologazio estatistikoen emaitza dira datu horiek. Lehen aldiz, Euskal Herri osoko ikuspegia eskaintzen da. Euskal Herriko datuak lortzeko egin ditugun prozeduren berri jakiteko, ikus web orriko "Iturriak eta metodologia oharra" txostena.
- **Jatorrizko datuak:** Biztanleria zentsuak eta Biztanleriaren estatistikak (EUSTAT, INE eta INSEE). Europako estatueta datuak: EUROSTAT.

**Argibide gehiagorako edo
Prentsa Ohar zaharrak hiru hizkuntzetan kontsultatzeko:**
Euskal Herriko Datu Talaia
www.datutalaia.net